



Iritziak

Krisialditik irakaspenak



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI
EKONOMIALARIA**

Hamar urte joan dira munduko ekonomiaren krisialdi larria hasi zenetik. Eraldaketa ugari izaten ari da gure eguneroko bizitzetan. Halere, badirudi ez dugula ezer handirik ikasi geure ohiko portaerak aldatzeko. Neurri paregabearen kontsumitzen jarraitzen dugu, ingurumena kutsatzen, armak ekoizten eta gerrak sustatzen. Begi-bistakoa da, gizakia aseezina da eta horrela jarraituko du planeta honetako baliabide oro amaitu arte.

Azken urte hauetako ekonomiaren bilakaerak, bestalde, garbi erakutsi digu alde ekonomikoek areagotzen jarraitu dutela iragan hamarkadetako ildoari eutsita: %1 aberatsenen eta gainontzekoen %99aren arteko aldea handitu da, Thomas Piketty ekonomialariak erakutsi digun gisan, nahiz eta %99 horren baitan ere aldeak egon.

Halaber, beste ezaugarri bat ere aipatu behar da. Izan ere, kapitalak izugarriko abiadura hartu du zentralizazio prozesu amaigabearen. Ez da oraingo kontua kapitala eremu geografiko batzuetan garatu eta sustraitu izana, alabaina, egungo kapitalaren jarduera nagusiak mega-hiri batzuetan kokatzen ari dira: New York, Boston, Londres, Paris edo Madril bezalako hirietan. Gehienetan, horietako eraikinak zaharkituak egoteaz gain, pertsona zaharrak bizi ziren zerbitzu publiko narriatuekin. Orain, aldiz, enpresa teknologikoak eta profesional kualifikatuak kokatzen ari dira eremu

Gaur egun hobekiago daude hiri handietako zergadunak herri txikitakoak baino; haiek zerbitzu guztiak eskura dituzten bitartean, herri txikietako biztanleek zerbitzu urriago eta garestiagoak dituzte

horietan inbertsio erraldoiei jarraituz. Beraz, hiri batzuen irudiak erabat eraldatzen ari dira: eredu berri horren arabera, erdigune horietara sarrera altuko pertsonak doaz bizitzera eta ondo ordaindutako lanpostuz gain zerbitzu oro garatzen dira, luxuzko bizimodua izan dezaten.

Bestalde, etxebizitzaren burbuilaren ondorioz, gazte asko hirietatik kanpo bizitzera joan zen. Nahiz lanpostua hirian izan eta garraioan denbora luzeago eman behar izan, etxebizitzaren prezio eskuragarriagoekin konpentsatuko zutelakoan zeuden, baita zerbitzu publiko eta pribatu eroso samarrekin ere. Baina egoera konplikatu zaie. Izan ere, hurbileko garraio publikoak, errepidekoak zein trenbidekoak, endekatu besterik ez dira egin, abiadura handikoen mesedetara-

ko; haurtzaindegia, osasun-etxe eta eskolentzat diru publikoak murriztu dira eta konpentsatzeko, tokiko eta erregaiaren gaineko zergak puztu dira. Ondorioz, desio zuten bizi kalitatea hondatu besterik ez zaie egin.

Haatik, gaur egun hobekiago daude hiri handietako zergadunak herri txikitakoak baino; haiek zerbitzu guztiak eskura dituzten bitartean, herri txikietako biztanleek zerbitzu urriago, eskasago eta garestiagoak dituzte. Frantziako Jaka Horiak, beste batzuen artean, zergati honenatik ere irten dira kalera. Laburbilduta, zerga gatazka ematen ari da hiri handi eta herrietako zergadunen artean.

Horrelako zerbait ez al da ari gertatzen Hego Euskal Herrian? Bilbok eta Gasteizek beren esku dauzkate zerbitzu gehienak. Iruñea inguruan ere zentralizazio prozesua geldiezin da. Gipuzkoa nahikoa orekatutako lurraldea zen, baino Donostiak, egunetik egunera, gehiago irensten ditu inguruko jarduera ekonomiko guztiak: merkataritza, batik bat frankiziatua, zentro teknologiko txikiak –nahiz periferian kokatu–, osasun zentroak, kanpoko finantzen sukurtsalak, aseguru bulegoak, eta abar. Halaber, aipagarria da, erdigunea, hotel, pintxo taberna, kafetegi eta jolastokiz betetzen ari da, eta horrek edozein probintziatako hiri bihurtuko gaitu. Hori guztia dela eta, gipuzkoarrok ez al dugu nahiko grinarik izango neoliberalismoaren esplotatzeko era berri honi aurre egiteko? ●